



Notaria erabiltzeko soilik.
Para uso exclusivo notarial.

A 0834064
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

ELHUYAR FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

LEHEN ATALA. ARAU OROKORRAK

1. artikulua. - Izena eta izaera

'Elhuyar Fundazioa' izenaz sortzen da Fundazioa. Irabazi-asmorik gabea da, eta haren ondarea Erakundearen interes orokorreko helburuei atxikirik egongo da Fundazioa bizirik dagoen bitartean. Fundazio gidatuko duten arauak honako hauek izango dira: Euskal Autonomia Erkidegoko 12/1994 Fundazioen Legea eta Lege hori garatzeko arauzko xedapenak, Estatutu hauek eta Estatutu hauek interpretatu eta garatzeko Patronatuak onartzen dituen arauak eta dagozkion gainerako legezko xedapenak.

2. artikulua. - Nortasuna eta Gaitasuna

Fundazioak, Erregistroan erregistratu eta gero, berariazko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izango du. Hortaz, bere helburuak betetzeko behar den guztia egin ahal izango du, beti ere ordenamendu juridikoak ezarritakoaren arabera.

3. artikulua. - Eraentza

Fundazioa gobernatzeko, indarrean dauden legeak, Fundatzaileek estatutu hauetan adierazitako borondatea eta Patronatuak estatutuak interpretatu eta garatzeko ezarritako arauak eta xedapenak erabiliko dira.

Fundazioaren, beraren organo guztien eta berak gehiengoa duen enpresa eta erakundeen laneko hizkuntza euskara izango da.

4. artikulua. - Helbidea

Fundazioaren helbidea honako hau izango da: Asteasuain Poligonoa 14, 20170 Usurbil (Gipuzkoa).

Patronatuak helbidea aldatu ahal izango du. Horretarako, Estatutuak aldatu egin beharko ditu, eta Protektoratuari jakinaraziko dio berehala, indarrean dauden legeetan zehazten den moduan.

5. artikulua. - Jardun-eremua

Fundazioak, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoan jardungo du.

BIGARREN ATALA. FUNDAZIOAREN HELBURUA, ETA ONURADUNAK ERABAKITZEKO ETA FUNDAZIOAREN HELBURUAK LORTZEKO BALIABIDEAK BIDERATZEKO OINARRIZKO ARAUAK

6. artikulua. - Helburuak

Zientzia eta teknologiaren esparruan, dibulgazio-, sustapen-, ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-jarduerak egitea eta sustatzea, bai eta euskararen garapen osoaren bidean —normalizazioaren zein estandarizazioaren eremuetan— aholkularitza-, dibulgazio-, ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-jarduerak egitea eta sustatzea ere, euskal gizarte eleanitzaren testuinguruan.

Helburu hori lortzearren, honako jarduera hauek egin ahal izango ditu Fundazioak:


- a) Euskal Herriko zientzia-ikerketa eta garapen teknologikoa ezagutaraztea Euskal Herrian zein munduan.
- b) Hezkuntza-sistemaren eta Zientzia eta Teknologiako sistemaren arteko harremanak bultzatzea argitalpen, jardunaldi, topaketa, mintegi, etab.en bidez.
- c) Zientziaren eta teknologiaren komunikazioaren alorrean trebakuntza sustatzea.
- d) Masa-hedabideen bidez zientziaren eta teknologiaren gizarteratzea sustatu, bultzatu eta laguntzea.
- e) Zientziaren eta teknologiaren gizarteratzean eta ikerketa eta garapen zientifiko-teknikoan diharduten pertsonen edota erakundeen laguntza eta orientabideak ematea.
- f) Naturaren eta ingurumenaren defentsa eta ikerketa bultzatzea.
- g) Euskararen gizarte-normalizazioa bultzatzea eta bideratzea, eta, horretarako, beharrezko ikerketa- eta garapen-jarduerak sustatzea eta gauzatzea.
- h) Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak gizartean txertatzeko bultzatzea, eta, bereziki, hizkuntzaren tratamendurako baliabide informatikoen alorrean ikerketa, garapena eta berrikuntza teknologikoa egitea eta sustatzea.
- i) Lexikografiako eta terminologiako lanak (hiztegiak, glosarioak, thesaurusak...) eta itzulpenak, —batez ere, zientziaren eta teknologiaren alorrean— egitea.
- j) Bere helburuak lortzeko behar diren enpresak, unitateak edo institutuak sortzea, garatzea edo/eta kudeatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko 12/1994 Legean jasotakoaren arabera.
- k) Eta, oro har, aipatutakoen antzekoa edo osagarria den edo haiekin lotuta dagoen zernahi jarduera.

7. artikulua. - Jarduteko askatasuna

Fundazioaren helburuak betetzearren, Patronatuak askatasun osoa izango du une bakoitzean egokienak edo komenigarrienak iruditzen zaizkion jomuga zehatzak lortzera bideratu beharreko jarduerak zehazteko.

Fundazioak honakoak egin ahal izango ditu:

- a) Era guztietako jarduera ekonomikoak egitea, bere helburuak lortzearren.
- b) Era guztietako ondasunak eta eskubideak —edozein titulu bidezkoak— erostea eta saltzea, eta era guztietako eginbideak, negozioak eta kontratuak egitea.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

A 08340631
GOBIERNO VASCO

JUSTITIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euzko Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
SEGURIDAD Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

c) Era guztietako egintzak egitea, legeen eta bere estatutuen arabera.

8. artikulua. - Onuradunak erabakitzea

Fundazioak, interes orokorreko bere helburuei dagokienez, objektibitatea eta inpartzialtasuna izango ditu gidari onuradunak hautatzeko orduan, eta ezin ezarriko du inolako diskriminazio negatiborik. Hori dela eta, bere helburu eta jarduerari behar beste publizitate egingo die, onuradun edo interesatu izan daitezkeenek ezagut ditzaten. Publiko orokorrari zuzendutako beka, sari edo antzeko jardueren oinarrietan argi eta garbi zehaztuko dira onuradunak hautatzeko irizpideak.

Fundazioaren jarduera bakoitzean Patronatuak, aurreko irizpideei jarraituz, erabakitzen dituen pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak izango dira Fundazioaren onuradun. Erabakia hartzeko, Patronatuak erakunde eta instituzioei laguntza eskatu ahal izango die onuradunak hautatzen laguntzeko eta Fundazioaren helburuak beteko direla bermatzeko.

9. artikulua. - Errenten eta diru-sarreraren erabilera

Patronatuak, Fundazioaren baliabideak erabiltzeko orduan, Euskal Autonomia Erkidegoko 12/1994 Fundazioen Legearen 30. artikulua xedatzen duena beteko du: Fundazioak zergak kendu ondoren lortzen dituen errenten edo beste edozein diru-sarrera garbiren ehuneko hirurogeita hamar, gutxienez, Fundazioaren helburuak gauzatzera bideratu beharko da. Gainerakoa, administrazio-gastuak kendu ondoren, Fundazioaren ondarea handitzera bideratu beharko da.

Aurreko pasartean aipatzen den errenten eta diru-sarreraren proportzioa bideratzeko, lortzen dituen unetik gehienez hiru urteko epea izango du Fundazioak.

HIRUGARREN ATALA. FUNDAZIOAREN GOBERNUA ETA ONDAREA

10. artikulua. - Izaera

Patronatua da Fundazioaren gobernu-organoa, ordezkaria eta administratzailea. Ordenamendu Juridikoan eta Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera beteko ditu bere eginkizunak Patronatuak.

11. artikulua. - Patronatuaren osaera

Patronatua kide anitzeko organoa izango da, gutxienez bost lagunez eta gehienez hogeita batez osatua.

Hasieran Patronatua erakunde sortzaileak izendatutako pertsonen osatuta egongo da.

Sortze-ekitaldiaren ondoren, Patronatuko kide-kopurua zehaztea –estatutu-mugen barruan– eta kide izango diren pertsonak izendatzea, Patronatuari berari dagokio, baita hutsuneak betetzeko eta kideak berritzeko izendapenak egitea ere. Patronatuan, gehienez, honako kideak egongo dira:

Hiru kide Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko edo Pirinio Atlantikoko Departamenduko Erakunde Publikoetakoak.

- Hiru kide Fundazioaren pertsona fisiko laguntzaileen arteko izendatuak.
- Hiru kide Fundazioaren laguntzaile diren enpresa eta zuzenbide pribatuko erakundearen arteko izendatuak.
- Zortzi kide hasierako laguntzaileen arteko izendatuak.

Gainera, euskararen normalizazioaren, ikerketa zientifikoaren edo garapen teknologikoaren alorretan ospea duten



JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euzko Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

edota merezimendua aitortzen zaien lau pertsona gehienez izan daitezke Patronatuko kide. Kide horiek Patronatuak berak hautatuko ditu.

12. artikulua. - Agintaldiaren iraupena

Patronatuko kideen agintaldia lau urtekoa izango da. Kideen erdiak bi urtez behin berrituko dira, eta nahi beste aldiz berrautatu ahal izango dira. Patronatuko kideen kopurua bakoitia balitz, kide-kopuruaren erdia zenbaki osoa izateko gorantz biribilduta ateratzen den kide-kopurua berrituko da lehenengo.

13. artikulua. - Patrono-kargua onartzea

Patronatuko kideak kargua espresuki onartu ondoren hasiko dira karguari dagozkion eginkizunak betetzen.

Aipatu onartzea eskritura publiko baten bidez, notario batek egiaztatutako dokumentu pribatu baten bidez edo Fundazioen Erregistroan horretarako agertuz inskribatuko da Fundazioen Erregistroan.

14. artikulua. - Patrono-kargua uztea

a) Fundazioaren Patronatuko kideen kargu-uztea honako arrazoiengatik gerta daiteke: heriotzagatik edo hildakotzat deklaratu izateagatik, edo pertsona juridikoa iraungitzen delako; uko egiteagatik, behar den bezala jakinaraziz gero; ezgaitasunagatik, gaitasungabetzeagatik edo bateraezintasunagatik, Legeak ezarritakoaren arabera; epaileak hala agintzeagatik; agintaldia amaitzeagatik, aldi baterako izendatuak izan baziren; eta Legean aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.

b) Karguari uko egitea Patronatuari jakinarazten zaion unean gauzatuko da.

c) Patrono-kargua hutsik gelditzen denean, Patronatuak gehienez bi hilabeteko epean hartuko ditu hutsunea betetzeko behar diren neurriak.

15. artikulua. - Patronatuaren antolaketa

Patronatuak Patronatuko kideen artean Presidente bat eta Presidenteorde bat izendatuko ditu. Idazkari bat ere izendatuko du, baina Idazkariak ez du nahitaez Patronatuko kidea izan behar.

16. artikulua. - Presidentea

Presidentea Fundazioaren ordezkaria izango da era guztietako pertsona, agintari eta erakunde publiko eta pribatuen aurrean; Patronatuaren bilera-deiak egingo ditu, bilera horietan buru izango da, kalitateko botoa izango du eta eztabaidak zuzenduko ditu, eta, hala dagokionean, Patronatuaren erabakiak gauzatu egingo ditu. Horretarako, era guztietako eginbideak egin eta behar diren dokumentuak sinatu ahal izango ditu.

17. artikulua. - Presidenteordea

Presidenteordeak Presidentearen egitekoak beteko ditu Presidente falta denean edo gaixo dagoenean, eta Fundazioaren izenean jardun ahal izango du Patronatuak hala erabakitzen duenean. Presidenteordea falta denean, patrono-karguan denbora gehien daraman kideak edo, antzinasun bera dutenean, patronorik zaharrenak ordezkatu du Presidenteordea.

18. artikulua. - Idazkaria

Idazkariaren egitekoak honako hauek dira: Fundazioaren agiri guztiak zaintzea, Patronatuaren bileren aktak egitea, behar diren egiaztariak eta txostenak egitea eta espresuki ematen zaizkion bestelako egitekoak. Gaixo dagoenean, falta denean edo postua bete gabe dagoenean, Patronatuko kiderik berrienak edo, antzinasun berdina dutenean,



Notaria erabiltzeko erabilik.
Para uso exclusivo notarial.

A 0834002

JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Eskual Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

kiderik gazteenak jardungo du Idazkariaren ordezkariak.

19. artikulua. - Patronatuaren eskumenak

Fundazioaren ordezkaritza, administrazioa eta gobernuak Patronatuari dagokio. Patronatuaren eskumenen mugak legeek ezarritakoak baino ez dira izango.

Fundazioaren helburuak betetzeko behar diren eskumen eta ahalmen guztien jabe bakarra Patronatua da. Berari dagokio Estatutu hauek inolako mugarik gabe interpretatzea.

Patronatuaren eskumenak, informazio gisa eta ez muga gisa ulerturik, honako hauek dira:

a) Fundazioa era guztietako agintari eta erakundeen aurrean ordezkatzeko, estatu-mailakoak direla, autonomia-erkidego mailakoak direla edo diren mailakoak direla, eta, oro har, Fundazioa hirugarren pertsonen aurrean ordezkatzeko.

b) Eskubideak, zorrak edo betebeharrak eskuratzea Fundazioarentzat, edo Fundazioaren izenean ematea, eta haiek ordaintzeko edo betetzeko epeak eta baldintzak ezartzea; kontuak eskatzea eta ematea; eta dirua maileguan hartzea edo kontu korrontean kreditu gisa hartzea, behar diren bermeak —higigarriak zein higiezinak— eman ondoren, hipoteka eratzea barne.

c) Fundazioaren izenean eta/edo pertsona fisiko edo juridikoen partetik abalak, fidantzak edo bermeak ematea eta hartzea, bai eta erakunde publikoen aurrean ere.

d) Mota guztietako ondasun higigarriak eta higiezinak saltzea, erostea, ordainean ematea edo jasotzea, uztea, trukatzeko eta beste nolana ere eskuratzea eta besterentzea, eta horretarako interesgarritzat jotzen dituen prezioak, baldintzak, epeak eta ordaintzeko erak erabakitzea.

e) Ageriko kontuak edo kreditu-kontuak ireki, erabiltzen jarraitu eta ixtea, eta dagoeneko irekita dauden saldoak erabiltzea; gordailuak esku-dirutan eta efektutan eratzea, kitatzea eta endosatzea edozein bankutan, baita Espainiako Bankuan edo beste edozein kreditu-erakunde edo erakunde komertzialetan ere, interesarekin edo interesik gabe, berme pertsonalekin, berme errealekin edo bermerik gabe; aipatu kontuen eta gordailuen fondoen zati bat edo osorik erabiltzea eta horretarako frogagiriak edo txekak sinatzea; likidazioak egitea, bermeak kentzea eta ateratzea, eta saldoekiko adostasuna ematea edo ukatzea.

f) Fundazioari zor zaiona eskatzea, eskuratzea eta kobratzea, zorraren jatorria eta izaera edozein dela ere, eta zorduna edonor dela ere, baita Ogasunaren Ordezkaritza edo Estatuaren edozein Administrazio edo Erakunde Publiko edo, Autonomia Erkidegoetako Erakundeak badira, edo sozietateak, enpresak edo pertsona fisikoak izanik ere; eta horretarako frogagiriak, ordainketa-aginduak, txekak, ordainketa-gutunak eta kitatze-agiriak eta behar diren gainerako agiriak sinatzea.

g) Ordainketa-etenduretan, porrotetan, kita eta itxaroteko prozeduretan eta hartzekodunen lehiaketetan parte hartzea; zordunekin eta hartzekodunekin hitzarmen judizialak eta ez-judizialak egitea eta gauzatu eta bete daitezen eskatzea; hartzekodunen biltzarretara joatea eta botoa ematea.

h) Ganbio-letrak, txekak, ordaindukoak, polizak, frogagiriak eta gainerako merkataritza-efektuak igortzea, onartzea, endosatzea, abalatzea eta negoziatzea; haien zenbatekoa ordaintzea eta kobratzea; onartzen edo ordaintzen ez direlako protestatzea, eta onartzeari uko egitea.

i) Gutunak eta telegrafo bidezko, telefono bidezko eta beste edonolako mezuak jasotzea, irekitzea eta erantzutea, baita posta bidezko gutun ziurtatuak, balore-orri deklaratuak eta mota guztietako posta-bidalketak eta -igorpenak ere. Halaber, edonon Fundazioaren izenean dagoen guztia jasotzea, eta behar diren erreklamazioak egitea.

j) Prima finkoko sozietateekin eta mutualitateekin edozein motatako aseguru-kontratuak egitea; bide judizialekin nahiz



ez judizialek erreklamazioak egitea eta behar den diru-kopurua kobratzea epemuga iritsiz gero edo ezbeharren bat gertatuz gero; polizen baldintza orokor eta partikularrak bete daitezen eta gauzatu daitezen eskatzeko eskubide guztiak erabiltzea, eta, batez ere, kalteen peritatzean parte hartzea, perituak izendatzea eta kentzea eta eskumena duen Epaitegiari hirugarren peritua izenda dezan eskatzea.

k) Bazkideen erantzukizuna mugatuta duten sozietateak —ekonomia sozialeko sozietateak barne— eratzea, akzioak eta partaidetza sozialak harpidetzea, ordainketak esku-dirutan edo gauzaz egitea, estatutuak hitzartzea eta kudeatzeko edo administratzeko karguak eta ordezkaritza sozialeko karguak izendatzea edo onartzea.

l) Lehiaketetan eta emateko edo hartzeko enkanteetan —publikoak zein pribatuak— parte hartzea eta transakzioak, arbitro-klausulak eta zuzenbideko edo zuzentasuneko arbitrajeak hitzartzea, arbitroak izendatzea eta haien laudoak onartzea edo aurka egitea.

m) Enpleguak eta langileak kontratatzea eta kaleratzea, soldatak eta era guztietako ordainsariak ezartzea, eta kalte-ordainak hitzartu eta ordaintzea.

n) Epaitegi eta Auzitegietan, jurisdikzioa edozein dela ere, agertzea: bai adiskidetze-egintzetan —adostasunarekin nahiz adostasunik gabe—, bai epaiketa zibiletan eta bai kausa kriminaletan, eta horietan guztietan kereilak sinatu ahal izatea eta prozeduraren eskaintza jaso ahal izatea; posizioak absolbitzea eta epaiketetan aitortzea; epaiketa zibiletan agertzea Auzibide Sozialeko Epaitegietan eta haien epaien aurkako helegiteetan; espediente administratiboak sustatzea edozein jurisdikzioaren aurrean; administrazioarekiko erreklamazio ekonomikoak eta administrazioarekiko auziak sustatzea, eta era guztietako espediente, epaiketa, prozesu eta kausetan erreserbarik eta mugarik gabe parte hartu ahal izatea edozein administrazioaren aurrean, jurisdikzioa edozein dela ere.

ñ) Aipatutako eskumenak erabiltzeko ahalordeak ematea eta kentzea.

o) Eta behar diren dokumentu publiko eta pribatu guztiak ematea eta sinatzea, baita konpontzekoak, zuzentzekoak eta behar diren gainerako dokumentu osagarriak ere.

20. artikulua. - Patronatuaren bilerak eta bilera-deiak

Patronatuak gutxienez urtean bi bilera egingo ditu, bata urteko lehendabiziko seihilekoan eta bestea azkeneko hiruilekoan. Horrez gainera, Fundazioa bide onetik joan dadin behar den beste aldiz bilduko da. Presidenteari dagokio Patronatuaren bilera-deiak egitea. Berak erabakitzen duenean edo Patronatuko kideen herenek eskatzen dutenean egingo du bilera-deia.

Bilera-eguna baino gutxienez bost egun lehenago helaraziko zaio kide bakoitzari deialdia, eta kide bakoitzak deialdia jaso duela frogatzeko modua ematen duen bidea erabiliko da deialdia helarazteko. Deialdian bileraren tokia, eguna eta ordua adieraziko dira, baita gai-zerrenda ere.


Patronatuko kide guztiak bertan daudela aho batez bilera egitea erabakitzen dutenean ez da beharrezkoa izango bilera-deia aldez aurretik bidaltzea.

21. artikulua. - Eztabaidatzeko eta erabakitzeko era

Lehen deialdian, gutxienez kideen erdia gehi bat biltzen direnean —bertan daudela edo Patronatuko beste kide batek ordezkatzeko dituela— osatutzat joko da Patronatua, eta bigarren deialdian behar bezala osatutzat joko da bileran dagoen patronatuko kideen kopurua edozein dela ere.

Erabakiak hartzeko, botoen gehiengo soilak behar izango da, Estatutuek edo Legeak gehiengo berezia eskatzen dutenean izan ezik.

Patronatuaren bilera-agiriak idazkariak egingo ditu, eta bileretan izandako guztiek onartu behar dituzte. Bilera-agiria dagokion liburura eramango da: idazkariak sinatu egingo du, eta Presidenteak oniritzia emango dio.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.



JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euzko Legebiltzaria
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

22. artikulua. - Patronatuaren betebeharrak

Patronatuak, bere jardunean, indarrean dauden legeak beteko ditu, eta fundatzaileek Estatutuen bidez ezarritako borondatearen arabera jokatu beharko du.

Patronatuari dagokio Fundazioaren helburuak betetzea eta Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzea, bai eta ondarearen etekinei eta erabilerari eustea ere.

Patronatuak Fundazioaren helburuen eta jardueren behar beste informazio emango du, balizko onuradunek eta gainerako interesatuek haien berri izan dezaten.

23. artikulua. - Patronatuko kideen betebeharrak eta erantzukizuna

Besteak beste, honako hauek dira Patronatuko kideen betebeharrak: Fundazioaren helburuak betearaztea; bilera-deia jasotzen dutenean, bilerara joatea; kargua ordezkaririk leial gisa arduraz betetzea; Fundazioaren ondasunak ongi zaintzea eta emankorrak izan daitezen arduratzea; eta beren jardunean indarrean dauden legeak eta Estatutuak hauek xedatzen dutena betetzea.

Legearen edo Estatutuen aurka jarduteagatik edo arduragabekeriak jokatzeagatik eragindako kalteen erantzule izango dira Patronatuko kideak Fundazioaren aurrean. Erabaki kaltegarri horien aurka espresuki agertu zirenak edo erabakietan parte hartu ez zutenak salbuetsi egingo dira erantzukizunetik.

24. artikulua. - Patrono-karguaren doako izaera

Patronatuko kideek doan beteko dute kargua, eta egiteko horregatik ezin izango dute inoiz ordainsaririk jaso.

Patronatuko kideek eskubidea izango dute beren egitekoa betetzeak sortzen dizkien gastuen ordaina jasotzeko, gastu horiek behar bezala frogatuz gero.

25. artikulua. - Patronatuko kideak kargugabetzea

Patronatuak edozein kide kargutik kentzea erabaki dezake, interesatuarekin aldez aurretik hitz egin beharko badu ere, baldin eta Patronatuko kide horrek 12/1994 Legearen 13. artikuluan zehazten diren betebeharrak betetzen ez baditu, Fundazioaren eginkizunetan edo Patronatuaren lanetan laguntzen ez badu, edo Patronatuak agindutako lanak egiteko orduan arduragabe jokatzen badu. Kargugabetzeko espedientea zabaldu zaion kideak ezin hartuko du parte beraren auzia erabakitzeko bileran.

26. kapitulua. - Zuzendaritza-batzordea

Patronatuak bere kideen artean Zuzendaritza-batzorde bat hautatu ahal izango du. Patronatuak erabakiko du kargu horiek betetzeko zenbat pertsona behar diren eta nola jardungo duten, eta haien esku utzi ahal izango ditu, osorik edo partez, aldi baterako edo mugarik gabe, eskumen guztiak, Legearen edo Estatutu hauen arabera inoren esku ezin utzi daitezkeenak izan ezik.

27. artikulua. - Zuzendari Nagusia

Patronatuak Zuzendari Nagusi bat izendatuko du eta kargu horretan jarduteko bete beharreko baldintza orokorrak zehaztuko ditu. Zuzendari Nagusiak Patronatuaren bileretan hartuko du parte, Patronatuak kontrarik erabaki ezean. Hitzia izango du, baina botorik ez.

28. artikulua. - Fundazioaren ondarea

Balio ekonomikoa izan dezaketen era guztietako ondasunak eta eskubideak izan daitezke Fundazioaren ondarea.



JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTIAK: SEGURANTZA SAILA
Euzko Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

29. artikulua. - Fundazioaren hornidura

Fundazioaren hasierako hornidura osatzen duten ondasun eta eskubideek eta aurrerantzean horretarako ematen zaizkion gainerakoek osatuko dute Fundazioaren hornidura.

Batzuek zein besteei Fundazioaren izenean agertu behar dute, eta haren inbentarioan eta, beharrezkoa denean, Fundazioen Erregistroan ere inskribaturik egon behar dute.

30. artikulua. - Jarduerak

Fundazioak, izaera osagarritz, merkataritza- zein industria-jarduerak honela egin ahal izango ditu:

- a) Bere kabuz, Fundazioaren helburuekin bat datozen edo haien zerbitzura daudenean.
- b) Kideen erantzukizuna mugaturik duten sozietateetan parte hartuz, partaidetza horien jabe izateak Fundazioaren helburuak hobeto betetzeko laguntzen badu.

31. artikulua. - Finantzaketa

Jardun ahal izateko, Fundazioak bere ondarearen etekinetatik ateratako baliabideak erabiliko ditu, eta beste pertsona edo erakunde batzuek, publiko nahiz pribatuak, emandako dirulaguntza edo dohaintzak ere erabili ahal izango ditu.

Fundazioak egiten dituen jardueretatik ere diru-sarrerak eskuratu ahal izango ditu, beti ere baldin eta horren ondorioz Fundazioaren balizko onuradunen bidegabeko mugatzea gertatzen ez bada.

32. artikulua. - Administrazioa

Patronatuak Fundazioaren ondarearen osaeran behar diren aldaketak egiteko eskumena du, unean uneko egoera ekonomikoaren arabera komeni bada, baina Protektoratuari baimena eskatu edo jakinarazi beharko dio.


Patronatuak Fundazioaren izenean ondoko ekintzetakoren bat egiten badu, Protektoratuari jakinarazi beharko dio:

- a) Jaraunspenak, legatuak eta dohaintzak onartzea edo uko egitea.
- b) Ondare-horniduraren zati diren ondasun eta eskubideak, edo Fundazioaren helburuak betetzeari zuzenean atxikita daudenak, edo azken balantzearen arabera Fundazioaren aktiboaren % 20 baino gehiago balio dutenak erabiltzeko edo haiei karga ezartzeko ekintzak.
- c) Aurreko atalean zehazten diren ondasun eta eskubideei dagozkien auziak arbitrajepean edo transakziopean jartzeko erabakia.
- d) Merkataritza- edo industria-jardueretan aritzea.

33. artikulua. - Finantza-erantzukizuna

Ekitaldi ekonomikoa bat etorriko da urte naturalarekin. Salbuespen gisa, lehendabiziko ekitaldia Eraketa Eskrituraren egun berean hasiko da eta hurrengo abenduaren 31n bukatuko da.

Indarrean dauden legeek zehazten dituzten liburuak izango ditu Fundazioak. Horiez gainera, bere jarduna behar den ordenaz eta era egokian egin ahal izateko behar diren liburuak ere izango ditu, baita kontabilitatearen kontrol egokirako behar direnak ere.



Notaria erabilerarako soilik.

Para uso exclusivo de notario

A 0834060
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euzko Legearen Erregistroa
DEL PARLAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

Ekonomia- eta finantza-kudeaketari dagokionez, Fundazioak indarrean dauden legeetan ezartzen diren oinarri eta irizpide orokorren arabera jokatu du.

34. artikulua. - Kontu-ematea eta Aurrekontuak egitea.

Urteko lehendabiziko sei hilekoan egin beharreko Batzarrean, Patronatuak honakoak onartuko ditu: Urteko Kontuak, Inbentarioa eta aurreko ekitaldiko sarreraren eta gastuen Aurrekontuaren kitapena. Dokumentu horiek Patronatuari aurkeztuko zaizkio urteko lehendabiziko sei hilekoan gordailatu ditzan. Era berean, Fundazioak, baldin legeek ezartzen dituzten kasuen barnean badago, aurreko agiriaren kanpoko ikuskapena egin beharko du.

Urteko azkeneko hiru hilekoan egin beharreko batzarrean, Patronatuak hurrengo ekitaldirako aurrekontua ere onartuko du. Aurrekontuan sarrera eta gastuen aurreikuspenak argi eta garbi azalduko dira, eta argibide-memoria ere izango du. Aipatu dokumentuak epe berean Patronatuari aurkeztuko zaizkio.

LAUGARREN ATALA. - LAGUNTZAILEAK

35. artikulua. - Laguntzaileen Juntak

Fundazioaren laguntzaile izango dira, hala nahi izanez gero, diru-ekarpena eginez, ondasunak utziz edo zerbitzuak emanaz Fundazioaren garapenari laguntzen dioten pertsona fisiko edo juridikoak, Patronatuak modu orokor eta objektiboan zehaztuko dituen irizpideen arabera.

Laguntzaileak lau multzotan sailkatuko dira:

- Hasierako laguntzaileak: Erakunde sortzaileak Eraketa Eskrituran izendatutakoentzat erreserbatuta.
- Banakako laguntzaileak: pertsona fisikoentzat erreserbatuta.
- Laguntzaile Sozietarioak: pertsona juridikoentzat erreserbatuta.
- Ohorezko laguntzaileak: pertsona fisiko edo juridikoentzat erreserbatuta.

Patronatuak laguntzaileen alteen eta bajeen liburua edo zerrenda eguneratua izango du. Han, laguntzaileak aurreko multzoen arabera sailkatuko dira.

Fundazioaren laguntzaileek hurrengo eskubideak izango dituzte:

- Estatutu hauetako 11. artikuluan zehaztu bezala, Patronatuko kide izateko aukeratu izan ahal izatea.
- Fundazioak bere jardueretan haiek parte hartzen dutela jakinarazteko eskubidea.
- Fundazioaren egoera eta jarduerari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- Patronatuari proposamenak egiteko eskubidea.

Laguntzaileen Batzar Nagusia gutxienez urtean behin bilduko da, Patronatuak urteko lehenengo sei hilekoan egin beharreko batzarra eta gero. Era berean, Laguntzaileen Batzar Nagusian edo laguntzaile-multzoen baten Batzar Berezian bildu ahal izango da Patronatuak deialdia egiten duen bakoitzean. Deialdiak Patronatuak egin ditzake, bai bere kabuz, bai laguntzaileen bosten batek, Batzar Nagusiaren kasuan, bai multzoetako bateko laguntzaileen heren batek, Batzar Berezia kasuan, eskatuta. Laguntzaileen Batzar Nagusian multzoen araberrako bozketa bereziak egin ahal izango dira.

Deialdia jakinarazpen pertsonalaren bidez egingo da, idatziz, batzarrerako eguna baino hamar egun lehenago gutxienez. Deialdian honako hauek zehaztuko dira: lekua, aretoa, data, ordua eta gai-zerrenda.



JUSTITIA 10. ETAKA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

Laguntzaileen Batzar Nagusiak edo Batzar Berezia legez osatuta geratuko da bertaratutakoen kopurua edozein izanik ere, eta buru izango da bertaratuek hautatzen dutena. Patronatuko idazkaria izango da Batzar Nagusi edo Bereziaketako idazkaria eta, bera ez balego, bertaratuek erabakitzen dutena. Erabakiak gehiengoz hartuko dira.

BOSGARREN ATALA. - ALDAKETA, BAT EGITEA ETA IRAUNGIPENA

36. artikulua. - Estatutuen aldaketa

a) Patronatuak Estatutu hauek aldatu ahal izango ditu Fundazioaren interesetarako komenigarria denean. Fundazioa sortu zenean zegoen egoera aldatzen bada, eta, aldaketa horren ondorioz, Estatutuek Fundazioaren jardun egokia oztokatzen badute, Estatutuak aldatu egingo dira.

b) Estatutuak aldatu ahal izateko, Patronatuko kideen gutxienez hiru bostenen aldeko botoak beharko dira.

c) Aldaketa-erabakiak arrazoitua izan behar du, eskritura publiko bidez gauzatu beharko da, Protektoratuak onartu behar du eta Fundazioen Erregistroan inskribatu behar da.

37. artikulua. - Beste Fundazio batekin bat egitea

Patronatuak Fundazioa beste batekin batzeko proposatu ahal izango dio Protektoratuari. Horretarako, aldezturik beste Fundazio horrekin bat egiteko akordioa hitzarturik izan beharko du.

Bat egiteko erabakia hartzeko, Patronatuko kideen hiru bostenen aldeko botoa behar izango da.

38. artikulua. - Fundazioaren iraungipena

Indarrean dauden legeetan ezartzen diren kausa eta prozeduren arabera iraungiko da Fundazioa.

39. artikulua. - Hartzekoaren kitapena eta esleipena

Fundazioa desegin ondoren ondasun eta eskubiderik geldituko balitz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari emango zaio.